

TOKIKO GOBERNU BATZARRA

2025.11.18

Alkatea:

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Bertaratutako zinegotziak:

Cristina Pelaez Errazquin

Aitor Aguirresarobe Murgui

Miren Yosune Sanz Vidal

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko azaroaren hemezortzian, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:

Ander Figuerido Zubiria

Goiuri Eceiza Arandia

Udal idazkaria:

Sara Berasategui Fuertes

Kontu-hartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

1. Akta hau onartzea:

2025eko azaroaren 11koa.

2. Onartzea eta egikaritzea, hala badagokio, Tolosako Udalaren eta Peñascal kooperatibaren arteko lankidetza-hitzarmena.

3. Onartzea eta egikaritzea, hala badagokio, Tolosako Udalaren eta Inmakulada Lanbide Ikastolaren arteko lankidetza-hitzarmena.

4. Onartzea eta egikaritzea, hala badagokio, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLren arteko lankidetza-hitzarmena.

5. Onartzea eta egikaritzea, hala badagokio, Tolosako Udalaren eta Iturriza Tolosaldeko Helduen Elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena.

6. Onartzea, hala badagokio, hitzarmena Kutxabank finantza-erakundearekin eta UEMAekin, euskara sustatzeko.



7. Onartzea, hala badagokio, hitzarmena Laboral Kutxa finantza-erakundearekin eta UEMArekin, euskarara sustatzeko.
8. Onartzea, hala badagokio, hitzarmena Bankoa-Abanca finantza-erakundearekin eta UEMArekin, euskarara sustatzeko.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO AZAROAREN 11KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA ETA EGIKARITZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALAREN ETA PEÑASCAL KOOPERATIBAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko uztailaren 11n, probidentzia bat eman zuela, non ebatzi zuen espediente bat hastea, Peñascal kooperatibarekin hitzarmena egiteko, ostalaritzako ikastaroetan euskara-eskolak emateko.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko uztailaren 14an egindako txostenaren bidez, proposatu zuela hitzarmena sinatzea. Besteak beste, azaldu zuen Udalak eskumena duela bere lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko, eta ostalaritzaren sektorean dagoela hutsune nabarmenetako bat; Tolosako Hizkuntza Politikako Plan Estrategikoan jasotako helburua da hor eragitea. Euskaltegiaren saioak Peñascal zentroan emateari dagokionez, HABEk berariaz aurreikusten du horrelako saioak euskaltegitik kanpo ematea, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin. Hitzarmenaren helburua da, hain zuzen ere, eskolak emateko eredu hori formalizatzea bi aldeen artean. Aisa ikastaroak direnez, ordenantza fiskalei jarraikiz, ikasleek ez dute matrikula ordainduko.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Honako hau dela prozedura honetan aplikatu beharreko araudia:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

BIGARRENA.- Idazkaritza Saileko teknikariak aldeko txostena egin zuela 2025eko irailaren 16an.

HIRUGARRENA.- Kontu-hartzailatza Azpisaileko teknikariak aldeko fiskalizazio-txostena idatzi zuela 2025eko azaroaren 6an.

LAUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateak daukala hitzarmena sinatzeko eskumena. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenak baldin badira. Horrenbestez, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udalaren eta Peñascal kooperatibaren arteko lankidetzahitzarmen hau onartzea eta egikaritzea:

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA PEÑASCAL KOOPERATIBAREN ARTEKOA

Tolosan, azken sinadura elektronikoaren datan



ELKARTURIK

Aldi batetik, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Eta bestetik, Guillermo Malcorra Altuna (NAN: 44132262T), Peñascal Kooperatibaren ordezkaria.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritza, bat etorrira 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak, Peñascal Kooperatibaren ordezkari gisa (aurrerantzean, Peñascal), egintza hau egiteko behar adina ahalorde dituela, 2012ko apirilaren 18an Andres Urrutia Badiola notarioaren aurrean egindako eskrituren bidez egiaztatuta.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote agiri hau sinatzeko gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa, eta horretarako, honako hau

AZALTZEN DUTE

- I. Peñascalek Ostalaritzako lanbide-ikasketak ematen dituela Tolosan. Ikasle gehien-gehienek ez dakite euskaraz, eta, areago, arrotza zaie. Ostalaritzan herritarrei zerbitzu emango dietenez ikasle horiek, eta aintzat hartuta Tolosan eta eskualdean arituko direla, Peñascalen helburua da ikasleak euskarara gerturatzea eta gutxieneko maila edukitzea.
- II. Tolosako Udalak hizkuntza-politikako lehentasunen artean duela herritar etorri berriekin lan egitea, euskararekiko motibazioan eragiteko eta gaitasuna areagotzeko. Gainera, Udalak arlo estrategiko gisa lantzen du eremu sozioekonomikoa, ikusita zer garrantzi daukan herritarren egunerokoan; premiarik handieneko eremuetako bat da ostalaritza, Tolosako arlo horretako enpresek arazoak baitituzte euskaraz dakiten langileak topatzen.



III. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7.2. artikuluan, udalei izendatzen diela, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko eskumena, *«horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz»*. Eskumen hori garatzeari begira, hitzarmenen eta lankidetzaren bidea aipatzen du 7.5. artikulua: *«Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; [...] elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin»*.

IV. HABEren ikastaro-eskaintzan badagoela gisa horretako ikasleekin lantzeko ikastaro espezifiko bat, Aisa izenekoa, xede duena etorkinak euskarara hurbiltzea. Eredu horrekin emango dira saioak Peñascalen, ostalaritza-arlorako behar diren egokitzapenak eginda.

Eta ados daudenez, hitzarmen hau formalizatzen dute bi aldeek, honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

Lehenena. Xedea.

Hitzarmen honen helburua da lankidetzaz-esparru bat ezartzea Peñascalen eta Tolosako Udalaren artean, Ostalaritzako lanbide-ikasketetan euskara-eskolak emateko. Saio horiek Aitzol Udal Euskarategiak emango ditu, Peñascalek Usabal industrialdean daukan zentroan.

Bigarrenena. Peñascalen konpromisoak.

Honako konpromiso hauek hartzen ditu Peñascalek:

- a) Ostalaritzako lanbide-ikasketetan txertatzea euskara-eskolak, ordutegi egokiarekin.
- b) Ostalaritzako lanbide-ikasketetako ikasleak bideratzea euskara-eskoletara, betiere ikasketak zentroan egiten ari diren epealdian, ostalaritzako praktiketan hasi aurretik.
- c) Euskara-eskolak emateko ikasgela egoki bat atontzea, beharrezko baliabideekin. Peñascal egingo da ikasgela horrek dituen gastuen kargu (argindarra, berogailua...).

Hirugarrena. Tolosako Udalaren konpromisoak.

Honako konpromiso hauek hartzen ditu Tolosako Udalak, Aitzol Udal Euskarategiak egiteko:

- a) AISA programa oinarri hartuta, ikastaroak emateko material egokiak prestatzea.



- b) Zehaztutako ordutegian eskolak ematea Peñascal kooperatibaren egoitzan.
- c) Ikasleen jarraipena egitea eta gerta litezkeen gorabeheren berri ematea Peñascali.

Laugarrena. Matrikulen kudeaketa.

Euskara-eskoletako ikasleak Aitzol Udal Euskaltegiko ikasle gisa matrikulatuko dira, Aisa programan, eta hala jakinaraziko zaio HABEri, horretarako zehaztutako prozeduraren bidez.

Bosgarrena. Matrikulen ordainketa.

Matrikularen ordainketari dagokionez, honako hau jaso dago Tolosako Udalaren prezio publikoen ordenantzari: «*AISA etorkinak euskara hurbiltzeko harrera ikastaroen barruko ikasleek ez dute prezio publikoa ordainduko*». Beraz, ikasle hauek doako matrikula daukate.

Seigarrena. Ikastaroaren ziurtagiria.

Zehaztutako euskara-eskolak egin ondoren, ziurtagiri bat emango zaie ikasleei, baldin eta bete badituzte gutxieneko helburuak. Ziurtagiri horretan adieraziko da zenbat eskola-ordu jaso dituzten. Ziurtagiri horrek ez du legezko eraginik izango 47/2012 Dekretuak, apirilaren 3koak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzenetik salbuesteko denak, zehaztutako ondorioetarako; orobat, ez du aitortuko Europako Erreferentzia Markoan zehaztutako hizkuntza-mailarik.

Zazpigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen hau indarrean egongo da 2025eko irailaren 1etik 2026ko ekainera 30era arte.

Zortzigarrena. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko helburuz, Jarraipen Batzordea eratuko dute bi aldeek. Funtzio hauek izango ditu: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen dudak argitzea, eta bi aldeentzat interesekoak izan daitezkeen lankidetzabideak proposatzea. Hauek osatuko dute Jarraipen Batzordea: Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendari Josebe Izagirre Berasategik eta Peñascaleko ordezkari Guillermo Malcorra Altunak.

Bederatzigarrena. Hitzarmena aldatzea edo ez betetzea.

Hitzarmen honetako klausulak ez badira betetzen, bertan behera geratuko da hitzarmena.



Aldeetako edozeinek errekerimendu bat egin ahal izango dio beste aldeari, urratutzat jotzen dituen betebeharrak edo konpromisoak epe jakin batean bete ditzan. Errekerimendu hori egingo zaio hitzarmenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoaren arduradunari, eta alde sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoi bat gertatu dela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Arrazoi horrengatik hitzarmena suntsiarazten bada, eragindako kalteen kalte-ordaina eman ahal izango da, hala aurreikusi bada.

Hamargarrena. Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamaikagarrena. Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabigarrena. Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoen guztirako, kontuan hartu beharko da zer xedatzen duen 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak.

Hamahirugarrena. Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute legerian xedatutakoa beteko dutela, aplika daitekeen guztian.

Hamalagarrena. Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian eta Tolosako udaletxeko iragarki-taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute bi aldeek, eta nik, udal-idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.



ZINEGOTZI DELEGATUA

Miren Garbiñe Marzol Ormazabal

PEÑASCAL KOOPERATIBA

Guillermo Malcorra Altuna

Nire aurrean,

UDAL-IDAZKARIA

Sara Berasategui Fuertes

BIGARRENA.- Hitzarmena inskribatzea hitzarmenen erregistroan, eta Gardentasun Atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan eta 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Modernizazioa azpisailari.

3. ONARTZEA ETA EGIKARITZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALAREN ETA INMAKULADA LANBIDE IKASTOLAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko uztailaren 11n, probidentzia bat eman zuela, non ebatzi zuen espediente bat hastea, Inmakulada Lanbide Ikastolarekin hitzarmena egiteko, zaintzako ikastaroetan euskara-eskolak emateko.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko uztailaren 14an egindako txostenaren bidez, proposatu zuela hitzarmena sinatzea. Besteak beste, azaldu zuen Udalak eskumena duela bere lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko, eta zaintzaren sektorean dagoela hutsune nabarmenetako bat; Tolosako Hizkuntza Politikako Plan Estrategikoan jasotako helburua da hor eragitea. Euskaltegiaren saioak Inmakulada Ikastolaren zentroan emateari dagokionez, HABEk berariaz aurreikusten du horrelako saioak euskaltegitik kanpo ematea, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin. Hitzarmenaren helburua da, hain zuzen ere, eskolak emateko eredu hori formalizatzea bi aldeen artean. Aisa ikastaroak direnez, ordenantza fiskalei jarraikiz, ikasleek ez dute matrikula ordainduko.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Honako hau dela prozedura honetan aplikatu beharreko araudia:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

BIGARRENA.- Idazkaritza Saileko teknikariak aldeko txostena egin zuela 2025eko irailaren 16an.

HIRUGARRENA.- Kontu-hartzailatza Azpisaileko teknikariak aldeko fiskalizazio-txostena igorri zuela 2025eko azaroaren 6an.

LAUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateak daukala hitzarmena sinatzeko eskumena. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenak baldin badira. Horrenbestez, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udalaren eta Inmakulada Lanbide Ikastolaren arteko lankidetzahitzarmen hau onartzea eta egikaritzea:

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA INMAKULADA LANBIDE IKASTOLA KOOPERATIBAREN ARTEKOA

Tolosan, azken sinadura elektronikoaren datan



ELKARTURIK

Alde batetik, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Eta bestetik, Ana Maria Monge Arocena (NAN: 72440830F), Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolako zuzendaria.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak, Inmakulada Lanbide Ikastolaren ordezkari gisa (aurrerantzean, Inmakulada), egintza hau egiteko behar adina ahalorde dituela, Javier Oñate Cuadros notarioaren aurrean sinatutako ahalordetze-agirien bidez egiaztatuta.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote agiri hau sinatzeko gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa, eta horretarako, honako hau

AZALTZEN DUTE

- I. Inmakuladak zaintzaren arloko lanbide-ikasketak ematen dituela Tolosan. Ikasle gehien-gehienek ez dakite euskaraz, eta, areago, arrotza zaie. Zaintza-arloan herritarrei zerbitzu emango dietenez ikasle horiek, eta aintzat hartuta Tolosan eta eskualdean arituko direla, Inmakuladaren xedea da ikasleak euskarara gerturatzea eta gutxieneko maila edukitzea.
- II. Tolosako Udalak hizkuntza-politikako lehentasunen artean duela herritar etorri berriekin lan egitea, euskararekiko motibazioan eragiteko eta gaitasuna areagotzeko. Gainera, Udalaren arlo estrategikoetako bat da zaintzaren arloa, gizarte-erronka nagusitako bat den aldetik. Euskararen normalizazioak eragiteko premia handienetakoa duen arloa da.
- III. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7.2. artikuluan, udalei izendatzen diela, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko eskumena, *«horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz»*. Eskumen hori garatzeari begira, hitzarmenen eta lankidetzaren bidea aipatzen du 7.5. artikulua: *«Toki-erakundeei*



euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; [...] elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin».

IV. HABEren ikastaro-eskaintzan badagoela gisa horretako ikasleekin lantzeko ikastaro espezifikoa bat, Aisa izeneko, xede duena etorkinak euskarara hurbiltzea. Eredu horrekin emango dira saioak Inmakuladan, zaintzaren arlorako behar diren egokitzapenak eginda.

Eta ados daudenez, hitzarmen hau formalizatzen dute bi aldeek, honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

Lehenena. Xedea.

Hitzarmen honen helburua da lankidetzaz-esparru bat ezartzea Inmakuladaren eta Tolosako Udalaren artean, zaintza-arloko lanbide-ikasketetan euskara-eskolak emateko. Saio horiek Aitzol Udal Euskaltegiak emango ditu, Inmakuladak Kondeaneko Aldapan daukan egoitzan.

Bigarrenena. Inmakuladaren konpromisoak.

Honako konpromiso hauek hartzen ditu Inmakuladak:

- a) Zaintzako lanbide-ikasketen testuinguruan, ordutegi egokian txertatzea eskolak.
- b) Zaintza-arloko lanbide-ikasketetako ikasleak bideratzea euskara-eskoletara, betiere ikasketak zentroan egiten ari diren epealdian, praktiketan hasi aurretik.
- c) Euskara-eskolak emateko ikasgela egoki bat atontzea, beharrezko baliabideekin. Inmakulada egingo da ikasgelak dituen gastuen kargu (argindarra, berogailua...).

Hirugarrena. Tolosako Udalaren konpromisoak.

Honako konpromiso hauek hartzen ditu Tolosako Udalak, Aitzol Udal Euskaltegiak egiteko:

- a) AISA programa oinarri hartuta, ikastaroak emateko material egokiak prestatzea.
- b) Zehaztutako ordutegian eskolak ematea Inmakuladaren egoitzan.
- c) Ikasleen jarraipena egitea eta izan litezkeen gorabeheren berri ematea ikastetxeari.

Laugarrena. Matrikulen kudeaketa.

Euskara-eskoletako ikasleak Aitzol Udal Euskaltegiako ikasle gisa matrikulatuko dira, Aisa programan, eta hala jakinaraziko zaio HABEri, horretarako zehaztutako prozeduraren bidez.



Bosgarrena. Matrikulen ordainketa.

Matrikularen ordainketari dagokionez, honako hau jasoa dago Tolosako Udalaren prezio publikoen ordenantzari: «*AISA etorkinak euskara hurbiltzeko harrera ikastaroen barruko ikasleek ez dute prezio publikoa ordainduko*». Beraz, ikasle hauek doako matrikula daukate.

Seigarrena. Ikastaroaren ziurtagiria.

Zehaztutako euskara-eskolak egin ondoren, ziurtagiri bat emango zaie ikasleei, baldin eta bete badituzte gutxieneko helburuak. Ziurtagiri horretan adieraziko da zenbat eskola-ordu jaso dituzten. Ziurtagiri horrek ez du legezko eraginik izango 47/2012 Dekretuak, apirilaren 3koak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko denak, zehaztutako ondorioetarako; orobat, ez du aitortuko Europako Erreferentzia Markoan zehaztutako hizkuntza-mailarik.

Zazpigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen hau indarrean egongo da 2025eko irailaren 1etik 2026ko ekainera 30era arte.

Zortzigarrena. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko helburuz, Jarraipen Batzordea eratuko dute bi aldeek. Funtzio hauek izango ditu: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen dudak argitzea, eta bi aldeentzat interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bideak proposatzea. Hauek osatuko dute Jarraipen Batzordea: Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendari Josebe Izagirre Berasategik eta Inmakuladako zuzendari Ana Maria Monge Arocenak.

Bederatzigarrena. Hitzarmena aldatzea edo ez betetzea.

Hitzarmen honetako klausulak ez badira betetzen, bertan behera geratuko da hitzarmena.

Aldeetako edozeinek errekerimendu bat egin ahal izango dio beste aldeari, urratutzat jotzen dituen betebeharrak edo konpromisoak epe jakin batean bete ditzan. Errekerimendu hori egingo zaio hitzarmenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoaren arduradunari, eta alde sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoi bat gertatu dela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Arrazoi horrengatik hitzarmena suntsiarazten bada, eragindako kalteen kalte-ordaina eman ahal izango da, hala aurreikusi bada.

Hamargarrena. Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.



Hamaikagarrena. Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabigarrena. Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoen guztirako, kontuan hartu beharko da zer xedatzen duen 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak.

Hamahirugarrena. Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitekeen guztian.

Hamalagarrena. Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian eta Tolosako udaletxeko iragarki-taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute bi aldeek, eta nik, udal-idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.

ZINEGOTZI DELEGATUA
Miren Garbiñe Marzol Ormazabal

INMAKULADA LANBIDE IKASTOLA
Ana Maria Monge Arocena

Nire aurrean,

UDAL-IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes

BIGARRENA.- Hitzarmena inskribatzea hitzarmenen erregistroan, eta Gardentasun Atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan eta 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Modernizazioa azpisailari.



**4. ONARTZEA ETA EGIKARITZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALAREN
ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA SLREN ARTEKO LANKIDETZA-HI-
TZARMENA.**

IKUSIRIK

LEHENA.- Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko uztailaren 14an, probidentzia bat eman zuela, non ebatzi zuen espediente bat hastea, Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLrekin hitzarmena egiteko, kazetariei euskara-eskolak emateko.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko uztailaren 15ean egindako txostenaren bidez, proposatu zuela hitzarmena sinatzea. Besteak beste, azaldu zuen euskararen hedapenean garrantzi berezia dutela hedabideek, eguneroko jardunean eredu direlako, eta funtsezkoa dela horietan euskara egokia eta kalitatezkoa erabiltzea. Xede horrekin, dirulaguntza izendunen hitzarmenetan artikulua bat sartu da hizkuntzaren kalitatea bermatzeari buruz. Hori izango da euskara-eskola horien xedea, ez titulua lortzea.

HIRUGARRENA.- *Tolosaldeko Ataria*-ko kazetariak ez ezik, eskola horietan parte hartzen ari direla 28 Kanaleko kazetariak ere, eta, lekua zegoenez, baita Galtzaundiko kide bat ere.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Honako hau dela prozedura honetan aplikatu beharreko araudia:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

BIGARRENA.- Idazkaritza Saileko teknikariak aldeko txostena egin zuela 2025eko irailaren 16an.

HIRUGARRENA.- Kontu-hartzailatza Azpisaileko teknikariak aldeko fiskalizazio-txostena igorri zuela 2025eko azaroaren 13an.



LAUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateak daukala hitzarmena sinatzeko eskumena. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenak baldin badira. Horrenbestez, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLren arteko lankidetzeta-hitzarmen hau onartzea eta egikaritzea:

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA SL-REN ARTEKOA, EUSKARA-ESKOLAK EMATEKO

Tolosan, azken sinadura elektronikoaren datan

ELKARTURIK

Alde batetik, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Eta bestetik, Eider Aierbe Isasti (NAN: 72440830F), Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLren kudeatzailea.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrira 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak, Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLren ordezkari gisa (aurrerantzean, TKT), egintza hau egiteko behar adina ahalorde dituela, Enrique García-Jalón de la Lama notarioaren aurrean sinatutako ahalordetze-agirien bidez egiaztatuta.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote agiri hau sinatzeko gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa, eta horretarako, honako hau



AZALTZEN DUTE

- I. Eskualdeko euskarazko hedabide erreferentziala dela *Tolosaldeko Ataria*, TKTk ekoizten duena. Eskualdeko berri euskaraz ematea da *Ataria*-ren helburua, eta, hortaz, euskara, komunikatzeko tresna ez ezik, berriazko xedea ere bada komunikabideen jardunerako.
- II. Euskarazko hedabideek garrantzi handia dutela euskararen egokitasunari eta kalitateari dagokionez, eguneroko jardunean eredu baitira. Alde horretatik, funtsezkoa da hedabide horietako profesionalek gaitasuna izatea euskaraz egoki aritzeko. Hain justu ere, oinarri hori bermatu nahi dute TKTk eta Aitzol Udal Euskaltegiak, berriazko ikastaro baten bidez.
- III. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7.2. artikuluan, udalei izendatzen diela, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko eskumena, *«horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz»*. Eskumen hori garatzeari begira, hitzarmenen eta lankidetzaren bidea aipatzen du 7.5. artikulua: *«Toki-erakundeei euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; [...] elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin»*.

Eta ados daudenez, hitzarmen hau formalizatzen dute bi aldeek, honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

Lehen. Xedea.

Hitzarmen honen helburua da lankidetzaren esparru bat ezartzea TKTren eta Tolosako Udalaren artean, euskarazko hedabideetako profesionalei euskara-eskolak emateko. Saio horiek Aitzol Udal Euskaltegiak emango ditu, TKTk San Esteban auzoan erabiltzen duen egoitzan.

Ezaugarri hauek izango ditu ikastaroak:

- Helburu-maila: C2C2.
- Eredua: jardun bikoia.
- Ordu-kopurua: 40.

Bigarrena. TKTren konpromisoak.

Honako konpromiso hauek hartzen ditu TKTk:

- a) Langileei erraztasunak ematea euskara-eskoletara joan ahal izateko.



- b) Euskara-eskolak emateko ikasgela egoki bat atontzea, beharrezko baliabideekin. TKT egingo da ikasgelak dituen gastuen kargu (argindarra, berogailua...).

Hirugarrena. Tolosako Udalaren konpromisoak.

Honako konpromiso hauek hartzen ditu Tolosako Udalak, Aitzol Udal Euskaltegiak egiteko:

- a) Ikastaroak emateko material egokiak prestatzea.
- b) Zehaztutako ordutegian eskolak ematea TKTk erabiltzen duen egoitzan.
- c) Ikasleen jarraipena egitea eta izan litezkeen gorabeheren berri ematea.

Laugarrena. Matrikulen kudeaketa.

TKTko langileak Aitzol Udal Euskaltegiko ikasle gisa matrikulatuko dira, dagokion ikastaroa hautatuta, eta hala jakinaraziko zaio HABEri, horretarako zehaztutako prozeduraren bidez.

Bosgarrena. Matrikulen ordainketa.

Ordenantza fiskaletan zehaztutako moduan ordainduko du matrikula ikasle bakoitzak.

Seigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen hau indarrean egongo da 2025eko irailaren 1etik 2026ko ekainera 30era arte.

Zazpigarrena. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko helburuz, Jarraipen Batzordea eratuko dute bi aldeek. Funtzio hauek izango ditu: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen dudak argitzea, eta bi aldeentzat interesekoak izan daitezkeen lankidetzak proposatzea. Hauek osatuko dute Jarraipen Batzordea: Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendari Josebe Izagirre Berasategik eta TKTko kudeatzaile Eider Aierbe Isastik.

Zortzigarrena. Hitzarmena aldatzea edo ez betetzea.

Hitzarmen honetako klausulak ez badira betetzen, bertan behera geratuko da hitzarmena.

Aldeetako edozeinek errekerimendu bat egin ahal izango dio beste aldeari, urratutzat jotzen dituen betebeharrak edo konpromisoak epe jakin batean bete ditzan. Errekerimendu hori egingo zaio hitzarmenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoaren arduradunari, eta alde sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoi bat gertatu dela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Arrazoi horrengatik hitzarmena suntsiarazten bada, eragindako kalteen kalte-ordaina eman ahal izango da, hala aurreikusi bada.



Bederatzigarrena. Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamargarrena. Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaikagarrena. Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoen guztirako, kontuan hartu beharko da zer xedatzen duen 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak.

Hamabigarrena. Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute legerian xedatutakoa beteko dutela, aplika daitekeen guztian.

Hamahirugarrena. Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian eta Tolosako udaletxeko iragarki-taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute bi aldeek, eta nik, udal-idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.

ZINEGOTZI DELEGATUA
Miren Garbiñe Marzol Ormazabal

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO
TALDEA
Eider Aierbe Isasti

Nire aurrean,

UDAL-IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes

BIGARRENA.- Hitzarmena inskribatzea hitzarmenen erregistroan, eta Gardentasun Atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan eta 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Modernizazioa Azpisailari.



**5. ONARTZEA ETA EGIKARITZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALAREN
ETA ITURRIZA TOLOSALDEKO HELDUEN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDE-
TZA-HITZARMENA.**

IKUSIRIK

LEHENA.- Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko uztailaren 14an, probidentzia bat eman zuela, non ebatzi zuen espediente bat hastea, Iturriza Tolosaldeko Helduen Elkartearekin hitzarmena egiteko, adinekoei euskara-eskolak emateko.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko uztailaren 14an egindako txostenaren bidez, proposatu zuela hitzarmena sinatzea. Besteak beste, azaldu zuen Udalak eskumena duela bere lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko, eta adinekoen artean dagoela euskaraz ez dakitenen edo maila mugatua dutenen multzo esanguratsu bat. HABEk berariaz aurreikusten du horrelako saioak euskaltegitik kanpo ematea, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin. Hitzarmenaren helburua da, hain zuzen ere, eskolak emateko eredu hori formalizatzea bi aldeen artean. Ikastaroa HABEren curriculum barruan antolatuko da, eta ikasleek ordenantza fiskaletan aurreikusitakoa ordainduko dute.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Honako hau dela prozedura honetan aplikatu beharreko araudia:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

BIGARRENA.- Idazkaritza Saileko teknikariak aldeko txostena egin zuela 2025eko irailaren 16an.

HIRUGARRENA.- Kontu-hartzailatza Azpisaileko teknikariak aldeko fiskalizazio-txostena igorri zuela 2025eko azaroaren 6an.



LAUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateak daukala hitzarmena sinatzeko eskumena. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenak baldin badira. Horrenbestez, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Tolosako Udalaren eta Iturriza Tolosaldeko Helduen Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmen hau onartzea eta egikaritzea:

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA ITURRIZA ELKARTEAREN ARTEKOA, EUSKARA-ESKOLAK EMATEKO

Tolosan, azken sinadura elektronikoaren datan

ELKARTURIK

Alde batetik, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Eta bestetik, Antonio Gonzalez Esteban (NAN: 12984190T), Iturriza Tolosaldeko Helduen Elkarteko lehendakaria.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak, Iturriza Tolosaldeko Helduen Elkarteko ordezkari gisa (aurrerantzean, Iturriza), egintza hau egiteko behar adina ahalorde dituela, Euskadiko Elkartearen Erregistroan behar bezala egiaztatuta.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote agiri hau sinatzeko gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa, eta horretarako, honako hau



AZALTZEN DUTE

- I. Adineko herritarren garapen soziokulturala bultzatzea dela Iturriza elkartearen xedeetako bat, bere estatutuetako bigarren artikularen arabera. Helburu horrekin, hain zuzen ere, Aitzol Udal Euskaltegiari proposatu dio adineko herritarrentzako euskara-saioak ematea.
- II. Tolosako Udalak hizkuntza-politikako lehentasunen artean duela euskararen ikaskuntza bultzatzea. Hizkuntza Politikako Plan Estrategikoan, berariaz jasoak daude bi lan-ildo hauek: batetik, *EG2.1 lan-ildoak: Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu, eta tresnak onartu*; bestetik, *EG2.2. lan-ildoak: Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu*. Kontuan hartuta erdaldunen edo euskaldun hartzaileen multzo esanguratsu bat adinekoen artean dagoela, estrategikoa da arlo horretan eragitea.
- III. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7.2. artikuluan, udalei izendatzen diela, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko eskumena, «*horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz*». Eskumen hori garatzeari begira, hitzarmenen eta lankidetzaren bidea aipatzen du 7.5. artikulua: «*Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; [...] elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin*».

Eta ados daudenez, hitzarmen hau formalizatzen dute bi aldeek, honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

Lehenena. Xedea.

Hitzarmen honen helburua da lankidetzaren esparru bat ezartzea Iturriza elkartearen eta Tolosako Udalaren artean, adineko herritarrentzako euskara-eskolak emateko. Saio horiek Aitzol Udal Euskaltegiak emango ditu, Iturrizak San Joan kalean erabiltzen duen egoitzan.

Bigarrena. Iturrizaren konpromisoak.

Honako konpromiso hauek hartzen ditu Iturrizak:

- a) Kide dituen herritarrei informazioa ematea eta ikastaroan izen ematera bultzatzea.
- b) Euskara-eskolak emateko ikasgela egoki bat atontzea, beharrezko baliabideekin.



Hirugarrena. Tolosako Udalaren konpromisoak.

Honako konpromiso hauek hartzen ditu Tolosako Udalak, Aitzol Udal Euskaltegiak egiteko:

- a) Ikastaroak emateko material egokiak prestatzea.
- b) Zehaztutako ordutegian eskolak ematea Iturrizak erabiltzen duen egoitzan.
- c) Ikasleen jarraipena egitea eta izan litezkeen gorabeheren berri ematea.

Laugarrena. Matrikulen kudeaketa.

Interesa duten adinekoak Aitzol Udal Euskaltegiko ikasle gisa matrikulatuko dira, dagokien ikastaroa hautatuta, eta hala jakinaraziko zaio HABEri, horretarako zehaztutako prozeduraren bidez.

Bosgarrena. Matrikulen ordainketa.

Ordenantza fiskaletan zehaztutako moduan ordainduko du matrikula ikasle bakoitzak.

Seigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen hau indarrean egongo da 2025eko irailaren 1etik 2026ko ekainera 30era arte.

Zazpigarrena. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko helburuz, Jarraipen Batzordea eratuko dute bi aldeek. Funtzio hauek izango ditu: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen dudak argitzea, eta bi aldeentzat interesekoak izan daitezkeen lankidetzabideak proposatzea. Hauek osatuko dute Jarraipen Batzordea: Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendari Josebe Izagirre Berasategik eta Iturriza elkarteko ordezkari Juan Antonio Lopez Muñoak.

Zortzigarrena. Hitzarmena aldatzea edo ez betetzea.

Hitzarmen honetako klausulak ez badira betetzen, bertan behera geratuko da hitzarmena.

Aldeetako edozeinek errekerimendu bat egin ahal izango dio beste aldeari, urratutzat jotzen dituen betebeharrak edo konpromisoak epe jakin batean bete ditzan. Errekerimendu hori egingo zaio hitzarmenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoaren arduradunari, eta alde sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoi bat gertatu dela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Arrazoi horrengatik hitzarmena suntsiarazten bada, eragindako kalteen kalte-ordaina eman ahal izango da, hala aurreikusi bada.

Bederatzigarrena. Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.



Hamargarrena. Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaikagarrena. Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoen guztirako, kontuan hartu beharko da zer xedatzen duen 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak.

Hamabigarrena. Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitekeen guztian.

Hamahirugarrena. Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian eta Tolosako udaletxeko iragarki-taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute bi aldeek, eta nik, udal-idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.

ZINEGOTZI DELEGATUA
Miren Garbiñe Marzol Ormazabal

ITURRIZA ELKARTEA
Antonio Gonzalez Esteban

Nire aurrean,

UDAL-IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes

BIGARRENA.- Hitzarmena inskribatzea hitzarmenen erregistroan, eta Gardentasun Atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan eta 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Modernizazioa azpisailari.



6. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, HITZARMENA KUTXABANK FINANTZA-ERA-KUNDEAREKIN ETA UEMAREKIN, EUSKARA SUSTATZEKO.

IKUSIRIK

LEHENA.- Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko urriaren 30ean, probidentzia bat eman zuela, non ebatzi zuen espediente bat hastea, Kutxabank finantza-entitatearekin eta UEMArekin hitzarmen bat egiteko, euskara sustatzeko xedez.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko azaroaren 10ean, hitzarmenaren justifikazio-memoria egin zuela. Besteak beste, gogorarazi zuen Tolosako Udalaren Hizkuntza Politikarako Plan Estrategikoaren erronketako bat dela kontsumitzaile eta erabiltzaileek euskara erabiltzeko aukera handiagoak izatea, eta hitzarmenak bete-betean indartzen duela hori. UEMak urteak daramatza finantza-entitatearekin elkarlanean, arlo horretan euskara indartzeko, eta elkarlan-bide hori sendotuko da hitzarmenaren bidez: hizkuntza-irizpide aurreratuak ezarriko ditu entitateak, eta jarraipena egingo zaio aldian-aldian. Udalak konpromisoa hartuko du entitatearekiko harremanetan euskaraz jarduteko.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Honako hau dela prozedura honetan aplikatu beharreko araudia:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

BIGARRENA.- Idazkaritza Saileko teknikariak aldeko txostena egin duela 2025eko azaroaren 13an.

HIRUGARRENA.- Kontu-hartzailatza Azpisaileko teknikariak ez duela beharrekotzat jo txostena egitea.

LAUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateak daukala hitzarmena sinatzeko eskumena. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenak baldin badira. Horrenbestez,



Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udalaren, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen eta Kutxabank S.A.-ren arteko lankidetzaz hitzarmen hau onartzea eta egikaritzea:

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN, UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN ETA KUTXABANKEN ARTEKOA, FINANTZA-ARLOAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO

Tolosan, azken sinadura elektronikoaren datan

ELKARTURIK

Lehenik, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Bigarrenik, Martin Aramendi Arana, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria.

Eta hirugarrenik, Aitor Aranburu Olabarri, Kutxabankeko Txikizkako Bankaren zuzendari nagusia.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen izenean eta ordezkaritzan (aurrerantzean, UEMA), bat etorrita Mankomunitatearen estatutuek ezarritako eskumenekin.



Hirugarrenak, Kutxabanken ordezkari gisa, egintza hau egiteko behar adina ahalorde dituela, Vicente-María del Arenal Otero notarioaren aurrean egindako ahalordetza bidez egiaztatuta.

Hiru aldeek elkarri aitortzen diote agiri hau sinatzeko gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa, eta horretarako, honako hau

AZALTZEN DUTE

- I. Kutxabankek eta UEMAk lankidetza-hitza berritu dutela 2025eko azaroaren 20an, finantza-arloan euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin.
- II. Tolosako Udala, UEMako gainerako udalekin elkar hartuta, ahaleginetan ari dela euskararen erabilera normalizatzeko, indarrean den legeriak zehaztutako tresnak erabiliz. Udalaren xedea da eguneroko bizitzako eremu guztietan eragitea euskararen erabilera areagotzeko, baita arlo sozioekonomikoan ere. Finantza-entitateak ardatza dira horretan, herritarrekin harremana dutelako eta haien bulegoak herritarren topaleku baitira.
- III. Kutxabankek helburu duela bezeroei kalitatezko zerbitzua ematea, eta, horretarako, funtsezkoa dela bezeroaren hizkuntza-hautua bermatzea. Euskararen eta gaztelaniaren arteko desoreka gainditzeko, lagungarri da ahulen dagoen hizkuntza, euskara, lehenestea. Finantza-entitatea ikuspegi horrekin ari da euskararen presentzia areagotzen, indartzen eta sendotzen. Kutxabankek goraipatu egin nahi du bere langileek agerturiko konpromisoa eta borondatea.
- IV. Erakundeek ardura dute euskara sustatzeko. Helburu horretarako, lagungarri da lankidetza-hitza berritzea, eta horren babesean sinatu da honako hitza berritzea, finantza-entitateetan euskararen erabilera areagotzeko helburua daukana.

Eta ados daudenez, hitza berritzea hau formalizatzen dute hiru aldeek, honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

Lehen. Xedea.

Hitza berritzea honen helburua da lankidetza-esparru bat ezartzea Tolosako Udalaren, UEMaren eta Kutxabanken artean, finantza-arloan euskararen erabilera sustatzeko.



Bigarrena. Elkarren arteko harremanak.

Udalaren eta finantza-entitatearen arteko harremanak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz izango dira. Hori bermatzeko baliabideak jarriko dituzte bi aldeek; finantza-entitateen kasuan, udalerrietako bulegoetan ez ezik, baita gainerako ataletan ere.

Hirugarrena. Hizkuntza-irizpideak.

Finantza-entitateak, hitzarmena sinatu duen udalerrian dauzkan bulegoetan, euskararen presentzia bermatuko du herritarrekiko harremanetan. Helburu hori betetzeko asmoz, besteak beste, honako neurri zehatz hauek ezarriko ditu:

- a) Lehen hitza. Langileek euskaraz egingo diote lehen hitza bezeroari.
- b) Mezu elektronikoak. Posta elektroniko bidezko mezuak euskaraz bidaliko zaizkie bezeroei, edo ele bietan; ele bietan bidaltzekotan, euskara lehenetsiko da.
- c) Produktuak. Finantza-produktuei buruzko informazioa euskaraz emango dute langileek, non eta bezeroak ez duen aurkakoa eskatzen; idatzizko informazioari dagokionez, euskaraz emango dute, edo, bezeroak hala eskatzen badu, ele bietan. Helburu hori lortzeari begira, entitateak bereziki zainduko du langileek badutela nahiko trebetasun produktuei buruzko informazio teknikoak euskaraz emateko.
- d) Txartelak. Euskaraz konfiguratuko dira txartelak, bezeroak aurkakoa eskatu ezik.
- e) Eskaintza aktiboa. Finantza-entitateak ahalegina egingo du bezeroek gero eta gehiago erabil dezaten euskara bere zerbitzuetan. Horretarako, batetik, kartelak jarriko ditu bulegoetan, langileek badakitela adierazteko eta euskaraz aritzera gonbidatzeko; bestetik, erabilera sustatzeko kanpainak egingo ditu aldian-aldian.
- f) Kutxa automatikoak. Txartela sartu aurreko mezuak euskaraz agertuko dira kutxa automatikoetan: bai publizitatea, bai *sartu txartela* eta horrelako mezuak.
- g) Hizkuntza-paisaia. Euskaraz egongo dira bulegoetan jarritako iragarki kartelen %75 gutxienez, barrura zein kanpora begira. Kartel elebidunak jartzekotan, euskarazko mezua nabarmenduko da. Bulegoak publizitaterik jartzen badu tokiko argitalpenetan (aldizkariak, egitarauak...), euskaraz jarriko du. Bulegoko seinaleak euskaraz edo ele bietan jarriko dira; ele bietan bada, euskara lehenetsita. Eskuorrietan euskara lehenetsiko da, eta bulegoetan bezeroek hartzeko moduan dauden eskuorrien %75 gutxienez egongo dira euskarazko aldea ikusgai dutela.
- h) Toponimoak. Leku izenak erabiltzean, euskarazko izen ofizialak baliatuko dira.
- i) Eragiketak. Libretetan eta kontuetan eragiketaren bat erregistratu behar denean, erregistroak euskaraz izango dira, non eta bezeroak ez duen kontrakoa adierazten.



- j) 40 urtez azpiko bezeroei euskara hutsez bidaliko zaizkie komunikazioak, haiek ez badute besterik eskatzen —kasu horretan, ele bietan bidaliko zaizkie komunikazioak, betiere euskara lehenetsita—. Bezero berriak hartzeko prozeduretan txertatuko da irizpide hori, harremana euskaraz has dadin.

Laugarrena. Langileak.

Irizpide horiek guztiak ezartzeko eta euskararen erabilera sustatzeko, osagai funtsezkoa dira finantza-entitateko beharginak. Horiei begira, neurri hauek hartuko dira:

- a) Ezagutza. Bulego horietako langileak gai izango dira edozein lan-mota euskaraz egiteko. Xede hori lortzeko, trebakuntza eskainiko die entitateak, eta baliabide informatikoak prestatuko ditu. Bulego horietan zerbitzu emateko kontratatutako langile berriak, finkoak zein aldi baterakoak, elebidunak izango dira.
- b) Harrera. Langile berri bat hasten denean, harrera egitean azalduko zaizkio hitzarmen honetan jasotako irizpideak. Horrekin batera, udalerri euskaldunei buruzko oinarritzko informazioa helaraziko zaio, aurrez prestatutako material baten bidez. Hitzarmen hau indarrean sartzean, jadanik bulego horietan lanean ari diren behargin guztiei bidaliko zaie udalerri euskaldunei buruzko materiala.
- c) Lan-hizkuntza. Langileen arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko ahalegina egingo du entitateak, lankideen hizkuntza-ohituretan bereziki eraginez. Horretarako, euskararen erabilera sustatzeko antolatzen diren ekimenetan parte hartzea sustatuko du entitateak.

Bosgarrena. Banka elektronikoa.

Euskara lehenesteko neurriak hartuko ditu finantza-entitateak banka elektronikoarekin lotutako eremuetan, webgunean zein aplikazioetan. Bermatuko du eragiketa guztiak egin daitezkeela euskaraz. Bezeroek gailu elektronikoak euskaraz konfiguratu dituzten sustatuko du finantza-entitateak, hori bultzatzeko kanpainak eginez, kontuan izanik euskaraz konfiguratzea inportantea dela zerbitzuak euskaraz erabiltzeko.

Seigarrena. Hedapena.

Udalak hitzarmen honen edukiaren berri emango die herritarrei. Udal-langileei ere jakinaraziko die, finantza-entitatearekin harremanak euskaraz izan ditzaten.

Zazpigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen honek lau urteko iraunaldia izango du. Nolanahi ere, epea amaitu aurretik, edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Zortzigarrena. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko helburuz, Jarraipen Batzordea eratuko da. Funtzio hauek izango ditu: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen dudak



argitzea, eta bi aldeentzat interesekoak izan daitezkeen lankidetzabideak proposatzea. Egindako bileren eta balorazioen berri emango diote udalari.

Bederatzigarrena. Hitzarmena aldatzea edo ez betetzea.

Hitzarmen honetako klausulak ez badira betetzen, bertan behera geratuko da hitzarmena.

Aldeetako edozeinek errekerimendu bat egin ahal izango dio beste aldeetako edozeini, urratutzat jotzen dituen betebeharrak edo konpromisoak epe jakin batean bete ditzan. Errekerimendu hori egingo zaio hitzarmenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoaren arduradunari, eta alde sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoi bat gertatu dela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da.

Hamargarrena. Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamaikagarrena. Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabigarrena. Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoen guztirako, kontuan hartu beharko da zer xedatzen duen 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak.

Hamahirugarrena. Izaera pertsonaleko datuak.

Aldeek konpromisoa hartu dute akordio honetan jasotako datu pertsonal oro konfidentzialtasunez tratatzeko, bai eta honako hauetan jasotako xedapenak behar bezala eta une oro betetzeko ere: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Aldeek Akordio honen sinatzaileei buruzko datu pertsonalak tratatzeko dituzte, Akordioa mantentzen eta garatzen dela bermatzeko helburu bakarrarekin. Akordio honetan jasotako datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako, lege behartuta ez badaude. Era berean, interesdunek edozein unetan baliatu ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko



eskubideak, dagokion alderdiaren helbidera joz, bai eta erreklamazioa aurkeztu ere kontrol-agintaritza eskudunaren aurrean.

Hamalauugarrena. Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian eta udaletxeko iragarki-taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute hiru aldeek, eta nik, udal-idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.

TOLOSAKO UDALA
Miren Garbiñe Marzol
Ormazabal

UEMA
Martin Aramendi Arana

KUTXABANK
Aitor Aranburu
Olabarri

Nire aurrean,

UDAL-IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes

BIGARRENA.- Hitzarmena inskribatzea hitzarmenen erregistroan, eta Gardentasun Atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan eta 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Modernizazioa Azpisailari.



7. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, HITZARMENA LABORAL KUTXA FINANTZA-ERAKUNDEAREKIN ETA UEMAREKIN, EUSKARA SUSTATZEKO.

IKUSIRIK

LEHENA.- Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko urriaren 30ean, probidentzia bat egin zuela, non ebatzi zuen espediente bat hastea, Laboral Kutxa finantza-entitatearekin eta UEMArekin hitzarmen bat egiteko, euskara sustatzeko xedez.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko azaroaren 10ean, hitzarmenaren justifikazio-memoria egin zuela. Besteak beste, gogorarazi zuen Tolosako Udalaren Hizkuntza Politikarako Plan Estrategikoaren erronketako bat dela kontsumitzaile eta erabiltzaileek euskara erabiltzeko aukera handiagoak izatea, eta hitzarmenak bete-betean indartzen duela hori. UEMak urteak daramatza finantza-entitatearekin elkarlanean, arlo horretan euskara indartzeko, eta elkarlan-bide hori sendotuko da hitzarmenaren bidez: hizkuntza-irizpide aurreratuak ezarriko ditu entitateak, eta jarraipena egingo zaio aldian-aldian. Udalak konpromisoa hartuko du entitatearekiko harremanetan euskaraz jarduteko.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Honako hau dela prozedura honetan aplikatu beharreko araudia:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

BIGARRENA.- Idazkaritza Saileko teknikariak aldeko txostena egin duela 2025eko azaroaren 13an.

HIRUGARRENA.- Kontu-hartzailatza Azpisaileko teknikariak ez duela beharrekotzat jo txostena egitea.



LAUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateak daukala hitzarmena sinatzeko eskumena. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenak baldin badira. Horrenbestez, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Tolosako Udalaren, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen eta Laboral Kutxaren arteko lankidetza-hitzarmen hau onartzea eta egikaritzea:

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN, UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN ETA LABORAL KUTXAREN ARTEKOA, FINANTZA- ARLOAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKOA

Tolosan, azken sinadura elektronikoaren datan

ELKARTURIK

Lehenik, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Bigarrenik, Martin Aramendi Arana, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria.

Eta hirugarrenik, Nuria Aguirre Unzueta, Laboral Kutxaren ordezkaria.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



Bigarrenak, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen izenean eta ordezkaritza (aurrerantzean, UEMA), bat etorrita Mankomunitatearen estatutuek ezarritako eskumenekin.

Hirugarrenak, Laboral Kutxaren ordezkari gisa, egintza hau egiteko behar adina ahalorde dituela, Antonio Román de la Cuesta Gáldiz notarioaren aurrean egindako ahalordetzaren bidez egiaztatuta.

Hiru aldeek elkarri aitortzen diote agiri hau sinatzeko gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa, eta horretarako, honako hau

AZALTZEN DUTE

- I. Laboral Kutxak eta UEMAk lankidetzaz hitzarmena berri duela 2025eko azaroaren 20an, finantza-arloan euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin.
- II. Tolosako Udala, UEMAk gainerako udalekin elkar hartuta, ahaleginetan ari dela euskararen erabilera normalizatzeko, indarrean den legeriak zehaztutako tresnak erabiliz. Udalaren xedea da eguneroko bizitzako eremu guztietan eragitea euskararen erabilera areagotzeko, baita arlo sozioekonomikoan ere. Finantza-entitateak ardatza dira horretan, herritarrekin harremana dutelako eta haien bulegoak herritarren topaleku baitira.
- III. Laboral Kutxak helburu duela bezeroei kalitatezko zerbitzua ematea, eta, horretarako, funtsezkoa dela bezeroaren hizkuntza-hautua bermatzea. Euskararen eta gaztelaniaren arteko desoreka gainditzeko, lagungarri da ahulen dagoen hizkuntza, euskara, lehenestea. Finantza-entitatea ikuspegi horrekin ari da euskararen presentzia areagotzen, indartzen eta sendotzen. Laboral Kutxak goraipatu egin nahi du bere langileek agerturiko konpromisoa eta borondatea.
- IV. Erakundeek ardura dute euskara sustatzeko. Helburu horretarako, lagungarri da lankidetzaz hitzarmenak egitea, eta horren babesean sinatu da honako hitzarmen hau, finantza-entitateetan euskararen erabilera areagotzeko helburua daukana.

Eta ados daudenez, hitzarmen hau formalizatzen dute hiru aldeek, honako klausula hauekin:



KLAUSULAK

Lehena. Xedea.

Hitzarmen honen helburua da lankidetzaz-esparru bat ezartzea Tolosako Udalaren, UEMAren eta Laboral Kutxaren artean, finantza-arloan euskararen erabilera sustatzeko.

Bigarrena. Elkarren arteko harremanak.

Udalaren eta finantza-entitatearen arteko harremanak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz izango dira. Hori bermatzeko baliabideak jarriko dituzte bi aldeek; finantza-entitateen kasuan, udalerrietako bulegoetan ez ezik, baita gainerako ataletan ere.

Hirugarrena. Hizkuntza-irizpideak.

Finantza-entitateak, hitzarmena sinatu duen udalerrian dauzkan bulegoetan, euskararen presentzia bermatuko du herritarrekiko harremanetan. Helburu hori betetzeko asmoz, besteak beste, honako neurri zehatz hauek ezarriko ditu:

- a) Lehen hitza. Langileek euskaraz egingo diote lehen hitza bezeroari.
- b) Mezu elektronikoak. Posta elektroniko bidezko mezuak euskaraz bidaliko zaizkie bezeroei, edo ele bietan; ele bietan bidaltzekotan, euskara lehenetsiko da.
- c) Produktuak. Finantza-produktuei buruzko informazioa euskaraz emango dute langileek, non eta bezeroak ez duen aurkakoa eskatzen; idatzizko informazioari dagokionez, euskaraz emango dute, edo, bezeroak hala eskatzen badu, ele bietan. Helburu hori lortzeko begira, entitateak bereziki zainduko du langileek badutela nahiko trebetasun produktuei buruzko informazio teknikoak euskaraz emateko.
- d) Txartelak. Euskaraz konfiguratuko dira txartelak, bezeroak aurkakoa eskatu ezik.
- e) Eskaintza aktiboa. Finantza-entitateak ahalegina egingo du bezeroek gero eta gehiago erabil dezaten euskara bere zerbitzuetan. Horretarako, batetik, kartelak jarriko ditu bulegoetan, langileek badakitela adierazteko eta euskaraz aritzera gonbidatzeko; bestetik, erabilera sustatzeko kanpainak egingo ditu aldian-aldian.
- f) Kutxa automatikoak. Txartela sartu aurreko mezuak euskaraz agertuko dira kutxa automatikoetan: bai publizitatea, bai *sartu txartela* eta horrelako mezuak.
- g) Hizkuntza-paisaia. Euskaraz egongo dira bulegoetan jarritako iragarki kartelen %75 gutxienez, barrura zein kanpora begira. Kartel elebidunak jartzekotan, euskarazko mezua nabarmenduko da. Bulegoak publizitaterik jartzen badu tokiko argitalpenetan (aldizkariak, egitarauak...), euskaraz jarriko du. Bulegoko seinaleak euskaraz edo ele bietan jarriko dira; ele bietan bada, euskara lehenetsita. Eskurrietan euskara lehenetsiko da, eta bulegoetan bezeroek hartzeko moduan dauden eskuorrien %75 gutxienez egongo dira euskarazko aldea ikusgai dutela.



- h) Toponimoak. Leku izenak erabiltzean, euskarazko izen ofizialak baliatuko dira.
- i) Eragiketak. Libretetan eta kontuetan eragiketaren bat erregistratu behar denean, erregistroak euskaraz izango dira, non eta bezeroak ez duen kontrakoa adierazten.
- j) 40 urtez azpiko bezeroei euskara hutsez bidaliko zaizkie komunikazioak, haiek ez badute besterik eskatzen —kasu horretan, ele bietan bidaliko zaizkie komunikazioak, betiere euskara lehenetsita—. Bezero berriak hartzeko prozeduretan txertatuko da irizpide hori, harremana euskaraz has dadin.

Laugarrena. Langileak.

Irizpide horiek guztiak ezartzeko eta euskararen erabilera sustatzeko, osagai funtsezkoa dira finantza-entitateko beharginak. Horiei begira, neurri hauek hartuko dira:

- a) Ezagutza. Bulego horietako langileak gai izango dira edozein lan-mota euskaraz egiteko. Xede hori lortzeko, trebakuntza eskainiko die entitateak, eta baliabide informatikoak prestatuko ditu. Bulego horietan zerbitzu emateko kontratatutako langile berriak, finkoak zein aldi baterakoak, elebidunak izango dira.
- b) Harrera. Langile berri bat hasten denean, harrera egitean azalduko zaizkio hitzarmen honetan jasotako irizpideak. Horrekin batera, udalerrri euskaldunei buruzko oinarritzko informazioa helaraziko zaio, aurrez prestatutako material baten bidez. Hitzarmen hau indarrean sartzean, jadanik bulego horietan lanean ari diren behargin guztiei bidaliko zaie udalerrri euskaldunei buruzko materiala.
- c) Lan-hizkuntza. Langileen arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko ahalegina egingo du entitateak, lankideen hizkuntza-ohituretan bereziki eraginez. Horretarako, euskararen erabilera sustatzeko antolatzen diren ekimenetan parte hartzea sustatuko du entitateak.

Bosgarrena. Banka elektronikoa.

Euskara lehenesteko neurriak hartuko ditu finantza-entitateak banka elektronikoarekin lotutako eremuetan, webgunean zein aplikazioetan. Bermatuko du eragiketa guztiak egin daitezkeela euskaraz. Bezeroek gailu elektronikoak euskaraz konfiguratu dituzten sustatuko du finantza-entitateak, hori bultzatzeko kanpainak eginez, kontuan izanik euskaraz konfiguratzea inportantea dela zerbitzuak euskaraz erabiltzeko.

Seigarrena. Hedapena.

Udalak hitzarmen honen edukiaren berri emango die herritarrei. Udal-langileei ere jakinaraziko die, finantza-entitatearekin harremanak euskaraz izan ditzaten.

Zazpigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen honek lau urteko iraunaldia izango du. Nolanahi ere, epea amaitu aurretik, edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.



Zortzigarrena. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko helburuz, Jarraipen Batzordea eratuko dute Laboral Kutxak eta UEMAK. Funtzio hauek izango ditu: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen dudak argitzea, eta bi aldeentzat interesekoak izan daitezkeen lankidetzabideak proposatzea. Egindako bileren eta balorazioen berri emango diote udalari.

Bederatzigarrena. Hitzarmena aldatzea edo ez betetzea.

Hitzarmen honetako klausulak ez badira betetzen, bertan behera geratuko da hitzarmena.

Aldeetako edozeinek errekerimendu bat egin ahal izango dio beste aldeetako edozeini, urratutzat jotzen dituen betebeharrak edo konpromisoak epe jakin batean bete ditzan. Errekerimendu hori egingo zaio hitzarmenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoaren arduradunari, eta alde sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoi bat gertatu dela, eta hitzarmena suntsiarazitza joko da.

Hamargarrena. Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamaikagarrena. Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabigarrena. Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoen guztirako, kontuan hartu beharko da zer xedatzen duen 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak.

Hamahirugarrena. Izaera pertsonaleko datuak.

Aldeek konpromisoa hartu dute akordio honetan jasotako datu pertsonal oro konfidentzialtasunez tratatzeko, bai eta honako hauetan jasotako xedapenak behar bezala eta une oro betetzeko ere: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.



Aldeek Akordio honen sinatzaileei buruzko datu pertsonalak tratatuko dituzte, Akordioa mantentzen eta garatzen dela bermatzeko helburu bakarrarekin. Akordio honetan jasotako datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legez behartuta ez badaude. Era berean, interesdunek edozein unetan baliatu ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak, dagokion alderdiaren helbidera joz, bai eta erreklamazioa aurkeztu ere kontrol-agintaritza eskudunaren aurrean.

Hamalauugarrena. Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian eta udaletxeko iragarki-taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute hiru aldeek, eta nik, udal-idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.

TOLOSAKO UDALA
Miren Garbiñe Marzol
Ormazabal

UEMA
Martin Aramendi Arana

LABORAL KUTXA
Nuria Aguirre
Unzueta

Nire aurrean,

UDAL-IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes

BIGARRENA.- Hitzarmena inskribatzea hitzarmenen erregistroan, eta Gardentasun Atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan eta 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Modernizazioa Azpisailari.



8. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, HITZARMENA BANKOA-ABANCA FINANTZA-ERAKUNDEAREKIN ETA UEMAREKIN, EUSKARA SUSTATZEKO.

IKUSIRIK

LEHENA.- Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko urriaren 30ean, probidentzia bat egin zuela, non ebatzi zuen espediente bat hastea, Bankoa-Abanca finantza-entitatearekin eta UEMArekin hitzarmen bat egiteko, euskara sustatzeko.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko azaroaren 10ean, hitzarmenaren justifikazio-memoria egin zuela. Besteak beste, gogorarazi zuen Tolosako Udalaren Hizkuntza Politikarako Plan Estrategikoaren erronketako bat dela kontsumitzaile eta erabiltzaileek euskara erabiltzeko aukera handiagoak izatea, eta hitzarmenak bete-betean indartzen duela hori. UEMAk urteak daramatza finantza-entitatearekin elkarlanean, arlo horretan euskara indartzeko, eta elkarlan-bide hori sendotuko da hitzarmenaren bidez: hizkuntza-irizpide aurreratuak ezarriko ditu entitateak, eta jarraipena egingo zaio aldian-aldian. Udalak konpromisoa hartuko du entitatearekiko harremanetan euskaraz jarduteko.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Honako hau dela prozedura honetan aplikatu beharreko araudia:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

BIGARRENA.- Idazkaritza Saileko teknikariak aldeko txostena egin duela 2025eko azaroaren 13an.

HIRUGARRENA.- Kontu-hartzailatza Azpisaileko teknikariak ez duela beharrekotzat jo txostena egitea.

LAUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateak daukala hitzarmena sinatzeko eskumena. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenak baldin badira. Horrenbestez,

Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Tolosako Udalaren, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen eta Bankoa-Abancaren arteko lankidetzaz-hitzarmen hau onartzea eta egikaritzea:

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN, UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN ETA BANKOA ABANCAREN ARTEKOA, FINANTZA- ARLOAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO

Tolosan, azken sinadura elektronikoaren datan

ELKARTURIK

Lehenik, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Bigarrenik, Martin Aramendi Arana, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria.

Eta hirugarrenik, Jesus Suarez Garrido, Bankoa Abancaren zuzendari nagusia.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen izenean eta ordezkaritzan (aurrerantzean, UEMA), bat etorrita Mankomunitatearen estatutuek ezarritako eskumenekin.

Hirugarrenak, Bankoa Abancaren ordezkari gisa, egintza hau egiteko behar adina ahalorde dituela, Jose Eduardo Alvarez Sanchez notarioaren aurrean egindako ahalordetzaren bidez egiaztatuta.



Hiru aldeek elkarri aitortzen diote agiri hau sinatzeko gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa, eta horretarako, honako hau

AZALTZEN DUTE

- I. Bankoa Abancak eta UEMAK lankidetzaz hitzarmena berri duela 2025eko azaroaren 20an, finantza-arloan euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin.
- II. Tolosako Udala, UEMAKo gainerako udalekin elkar hartuta, ahaleginetan ari dela euskararen erabilera normalizatzeko, indarrean den legeriak zehaztutako tresnak erabiliz. Udalaren xedea da eguneroko bizitzako eremu guztietan eragitea euskararen erabilera areagotzeko, baita arlo sozioekonomikoan ere. Finantza-entitateak ardatza dira horretan, herritarrekin harremana dutelako eta haien bulegoak herritarren topaleku baitira.
- III. Bankoa Abancak helburu duela bezeroei kalitatezko zerbitzua ematea, eta, horretarako, funtsezkoa dela bezeroaren hizkuntza-hautua bermatzea. Euskararen eta gaztelaniaren arteko desoreka gainditzeko, lagungarri da ahulen dagoen hizkuntza, euskara, lehenestea. Finantza-entitatea ikuspegi horrekin ari da euskararen presentzia areagotzen, indartzen eta sendotzen. Bankoa Abancak goraipatu egin nahi du bere langileek agerturiko konpromisoa eta borondatea.
- IV. Erakundeek ardura dute euskara sustatzeko. Helburu horretarako, lagungarri da lankidetzaz hitzarmenak egitea, eta horren babesean sinatu da honako hitzarmen hau, finantza-entitateetan euskararen erabilera areagotzeko helburua daukana.

Eta ados daudenez, hitzarmen hau formalizatzen dute hiru aldeek, honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

Lehenena. Xedea.

Hitzarmen honen helburua da lankidetzaz-esparru bat ezartzea Tolosako Udalaren, UEMAKo eta Bankoa Abancaren artean, finantza-arloan euskararen erabilera sustatzeko.

Bigarrenena. Elkarren arteko harremanak.

Udalaren eta finantza-entitatearen arteko harremanak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz izango dira. Hori bermatzeko baliabideak jarriko dituzte bi aldeek; finantza-entitatearen kasuan, udalerrietako bulegoetan ez ezik, baita gainerako ataletan ere.



Hirugarrena. Hizkuntza-irizpideak.

Finantza-entitateak, hitzarmena sinatu duen udalerrian dauzkan bulegoetan, euskararen presentzia bermatuko du herritarrekiko harremanetan. Helburu hori betetzeko asmoz, besteak beste, honako neurri zehatz hauek ezarriko ditu:

- a) Lehen hitza. Langileek euskaraz egingo diote lehen hitza bezeroari.
- b) Mezu elektronikoak. Posta elektroniko bidezko mezuak euskaraz bidaliko zaizkie bezeroei, edo ele bietan; ele bietan bidaltzekotan, euskara lehenetsiko da.
- c) Produktuak. Finantza-produktuei buruzko informazioa euskaraz emango dute langileek, non eta bezeroak ez duen aurkakoa eskatzen; idatzizko informazioari dagokionez, euskaraz emango dute, edo, bezeroak hala eskatzen badu, ele bietan. Helburu hori lortzeari begira, entitateak bereziki zainduko du langileek badutela nahiko trebetasun produktuei buruzko informazio teknikoa euskaraz emateko.
- d) Txartelak. Euskaraz konfiguratzeko aukera eskainiko dute txartelek.
- e) Eskaintza aktiboa. Finantza-entitateak ahalegina egingo du bezeroek gero eta gehiago erabil dezaten euskara bere zerbitzuetan. Horretarako, batetik, kartelak jarriko ditu bulegoetan, langileek badakitela adierazteko eta euskaraz aritzera gonbidatzeko; bestetik, erabilera sustatzeko kanpainak egingo ditu aldian-aldian.
- f) Kutxa automatikoak. Kutxa automatikoaren zerbitzua ele bietan eskainiko da.
- g) Hizkuntza-paisaia. Euskaraz egongo dira bulegoetan jarritako iragarki kartelen %75 gutxienez (betiere iragarki kartel kopuruak ahalbidetzen duenean), barrura zein kanpora begira. Kartel elebidunak jartzekotan, euskarazko mezua nabarmenduko da. Bulegoak publizitaterik jartzen badu tokiko argitalpenetan (aldizkariak, egitarauak...), euskaraz jarriko du. Bulegoko seinaleak euskaraz edo ele bietan jarriko dira; ele bietan bada, euskara lehenetsita. Eskuorrietan euskara lehenetsiko da, eta bulegoetan bezeroek hartzeko moduan dauden eskuorrien %75 gutxienez egongo dira euskarazko aldea ikusgai dutela.
- h) Toponimoak. Leku izenak erabiltzean, euskarazko izen ofizialak baliatuko dira.
- i) Eragiketak. Libretetan eta kontuetan eragiketaren bat erregistratu behar denean, automatikoak ez diren erregistroak euskaraz izango dira, non eta bezeroak ez duen kontrakoa adierazten.
- j) 40 urtetik beherako bezeroak. 40 urtez azpiko bezeroei ele bietan bidaliko zaizkie komunikazioak, euskara lehenetsita. Bezero berriak hartzeko prozeduretan txertatuko da irizpide hori.

Laugarrena. Langileak.

Irizpide horiek guztiak ezartzeko eta euskararen erabilera sustatzeko, osagai funtsezkoa dira finantza-entitateko beharginak. Horiei begira, neurri hauek hartuko dira:



- a) Ezagutza. Bulego horietako langileak gai izango dira edozein lan-mota euskaraz egiteko. Xede hori lortzeko, trebakuntza eskainiko die entitateak, eta baliabide informatikoak prestatuko ditu. Bulego horietan zerbitzu emateko kontratatutako langile berriak, finkoak zein aldi baterakoak, elebidunak izango dira.
- b) Harrera. Langile berri bat hasten denean, harrera egitean azalduko zaizkio hitzarmen honetan jasotako irizpideak. Horrekin batera, udalerri euskaldunei buruzko oinarritzko informazioa helaraziko zaio, aurrez prestatutako material baten bidez. Hitzarmen hau indarrean sartzean, jadanik bulego horietan lanean ari diren behargin guztiei bidaliko zaie udalerri euskaldunei buruzko materiala.
- c) Lan-hizkuntza. Langileen arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko ahalegina egingo du entitateak, lankideen hizkuntza-ohituretan bereziki eraginez. Horretarako, euskararen erabilera sustatzeko antolatzen diren ekimenetan parte hartzea sustatuko du entitateak.

Bosgarrena. Banka elektronikoa.

Euskara lehenesteko neurriak hartuko ditu finantza-entitateak banka elektronikoarekin lotutako eremuetan, webgunean zein aplikazioetan. Bermatuko du eragiketa guztiak egin daitezkeela euskaraz. Bezeroek gailu elektronikoak euskaraz konfiguratu ditzaten sustatuko du finantza-entitateak, hori bultzatzeko kanpainak eginez, kontuan izanik euskaraz konfiguratzea inportantea dela zerbitzuak euskaraz erabiltzeko.

Seigarrena. Hedapena.

Udalak hitzarmen honen edukiaren berri emango die herritarrei. Udal-langileei ere jakinaraziko die, finantza-entitatearekin harremanak euskaraz izan ditzaten.

Zazpigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen honek lau urteko iraunaldia izango du. Nolanahi ere, epea amaitu aurretik, edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Zortzigarrena. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko helburuz, Jarraipen Batzordea eratuko dute Bankoa Abancak eta UEMAK. Funtzio hauek izango ditu: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen dudak argitzea, eta bi aldeentzat interesekoak izan daitezkeen lankidetzabideak proposatzea. Egindako bileren eta balorazioen berri emango diote udalari.

Bederatzigarrena. Hitzarmena aldatzea edo ez betetzea.

Hitzarmen honetako klausulak ez badira betetzen, bertan behera geratuko da hitzarmena.

Aldeetako edozeinek errekerimendu bat egin ahal izango dio beste aldeetako edozeini, urratutzat jotzen dituen betebeharrak edo konpromisoak epe jakin batean bete ditzan.



Errekerimendu hori egingo zaio hitzarmenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoaren arduradunari, eta alde sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoi bat gertatu dela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da.

Hamargarrena. Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamaikagarrena. Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabigarrena. Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoen guztirako, kontuan hartu beharko da zer xedatzen duen 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak.

Hamahirugarrena. Izaera pertsonaleko datuak.

Aldeek konpromisoa hartu dute akordio honetan jasotako datu pertsonal oro konfidentzialtasunez tratatzeko, bai eta honako hauetan jasotako xedapenak behar bezala eta une oro betetzeko ere: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Aldeek Akordio honen sinatzaileei buruzko datu pertsonalak tratatuko dituzte, Akordioa mantentzen eta garatzen dela bermatzeko helburu bakarrarekin. Akordio honetan jasotako datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legez behartuta ez badaude. Era berean, interesdunek edozein unetan baliatu ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak, dagokion alderdiaren helbidera joz, bai eta erreklamazioa aurkeztu ere kontrol-agintaritza eskudunaren aurrean.

Hamalagarrena. Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian eta udaletxeko iragarki-taulan.



TOLOSAKO
UDALA

2025IGBA0036

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute hiru aldeek, eta nik, udal-idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.

TOLOSAKO UDALA
Miren Garbiñe Marzol
Ormazabal

UEMA
Martin Aramendi Arana

BANKOAAABANCA
Jesus Suarez
Garrido

Nire aurrean,

UDAL-IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes

BIGARRENA.- Hitzarmena inskribatzea hitzarmenen erregistroan, eta Gardentasun Atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan eta 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Modernizazioa Azpisailari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:10ean.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IGBA0036-2025/11/18ko akta/2025/11/18ko akta ()